AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

31

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 17koa, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, Lehiaren Euskal Agintaritzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta Lehiaren Euskal Agintaritzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askearen sistema erabiliz betetzeko deialdia iragarri zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2012ko abuztuaren 31ko Aginduan ezarritakoaren arabera (2012ko irailaren 14ko EHAA, 180. zk.), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nora Arrotegui Pineda andrea, Lehiaren Euskal Agintaritzaren goi-kargudunaren idazkari izendatzea (kodea: 520010; dotazioa: 182).

Bigarrena.– Izendapen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2012ko abenduaren 17a.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakaria,
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA.